

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANTAURIKO URKIDETZA UR PARTZUERGOA

Hasierako onespena ematea "Artziniegako EUA birmoldatzeko eta handitzeko obren aurreproiektua"ri

Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoko gobernu batzarrak, 2019ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, onespena eman zion "Artziniegako EUA birmoldatzeko eta handitzeko obren aurreproiektua"ri, zeina Ingeniería, tecnología y gestión SL enpresak idatzi baitu. Kontrata bidez gauzatzeko aurrekontua: 939.515,55 euro; gauzatzeko epea: zortzi hilabete.

Proiektu hori jendaurrean jarriko da hamabost egun baliodunez, kasuan kasuko iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Onespena ematen duen erabakia behin betiko onartutzat joko da, baldin eta haren aurka ez bada aurkezten erreklamaziorik proiektua jendaurrean dagoen bitartean. Erreklamaziorik egoten bada, gobernu batzarrak hilabeteko epea izango du haiek ebazteko.

Izoria, 2019ko uztailaren 30a

Lehendakaria

JULEN IBARROLA GOBANTES